OIARTZUNGO KLIMA ETA ENERGIA PLANA IDAZTEKO AHOLKULARITZA ENPRESA BATEN KONTRATAZIOA

-PRESKRIPZIO TEKNIKOAK-

1. AURREKARIAK

Tokiko eta eskualdeko eremuetatik klima-aldaketaren aurkako borrokan egindako ahaleginak arintzera bideratu dira gehien, berotegi-efektuko gasak (BEG) murrizteko. Hala ere, horrelako ekintzak, beharrezkoak izan arren, ez direnez nahikoak klima-aldaketaren inpaktuak saihesteko; argi dago erantzun posibleen plangintzatik ere jardun behar dela, inpaktu horiek sortzen dituzten egoeretara egokituz.

Klima-aldaketaren ondorioak saihestezinak direla zientifikoki egiaztatu eta nazioarteko komunitatean aitortu denez, azken urteotan bultzada handia ematen ari zaie egokitzapen-politikei, eta Europan Aldaketara Egokitzeko Europako Estrategiaren bidez (COM (2013) 216 azkena).

Bestalde, 2030 Agendak, garapen jasangarriaren esparruan nazioarteko erreferentzia-esparru gisa, garapen jasangarriko 17 helburu planteatzen ditu; eta helburu horiei lotuta, guztira, 169 xede integratu eta zatiezin biltzen dira, gizarte-ekonomia- eta ingurumen dimentsioak barne hartzen dituztenak. Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak GJH 13an jasotzen dira; horren helburuetako bat da herrialde guztietako klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuetara egokitzeko erresilientzia eta gaitasuna indartzeko beharra.

Tokiko mailan, Klima eta Energiarako Alkateen Ituna erreferentziazko lan-esparrua da Europako toki-erakundeentzat, klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea helburu duen politika integralaren alde egiten baitute.

Erreferentzia esparru metodologiko horren gainean, Euskadin udalerrientzako hainbat baliabide tekniko eta metodologiko garatu dira, eta baliabide horiei klimaren aldeko tokiko ekintza sustatzeko euskarria eskaini zaie. Gaur egun, Ihobe (EEErekin lankidetzen) ekintza koordinatu bat bultzatzen ari da arintzearen eta egokitzearen arloan, eta horren emaitza esparru metodologiko komun bat izango da, limari eta energiari buruzko 2030erako esparruaren helburuak lortzeko eta indarreko arau-esparruari erantzutera bideratutako klima- eta energia-planak egitea ahalbideratuko duena. *(Ihobe 2021 Klima Aldaketara egokitzeko Udal Programak egiteko gidaliburua).*

2. KONTRATUAREN XEDEA

Proiektuaren xedea da Oiartzungo Klima eta Energia plana (aurrerantzean, KEP) egitea, udalerriaren plangintza estrategikoaren esparru gisa, klima-aldaketara egokitzearen arloko tokiko ekintza egituratzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzko 4/2019 Legearen eskakizunak betetzeko, kontabilitate, plangintza eta komunikazio energetikoari dagokienez.

ESKUfbbe9a6f-5f01-48bd-93b5-657e26db5efd

3. IRISMENA ETA EDUKIA

3.1. IKUSPEGIA

Plan horrek, aldi berean, aukera eman behar du Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 04/2019 Legearen eskakizunak betetzeko, kontabilitateari, plangintzari eta komunikazio energetikoari dagokienez, eta Oiartzungo Udalari erraztasunak eman behar dizkio lege horretan adierazitako Jarduketa Energetikoaren Plana egiteko eta EAEko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren etorkizuneko Legearen klimaren aldeko tokiko ekintza-erronkei aurre egiteko.

Planari esker, berotegi-efektuko gasen emisioak % 40 murrizteko helburuak lortzeko egin beharreko ekintzak zehaztu eta lehenetsiko dira. Etorkizuneko EAEko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen eta Klimaren aldeko Alkatetzen Itunaren ildotik, Planak energia-efizientziako neurriak jaso beharko ditu, energia aurreztea eta energia berriztagarriak sartzea ahalbidetzeko, eta udalerriaren erresilientzia eta egokitzapena areagotzeko, klima-aldaketaren aurrean.

3.2. IRISMENA ETA EDUKIA

Oiartzungo KEParen garapenak honako lan-fase hauek izango ditu:

1. PRESTAKUNTZA FASEA

    1.1. Eskura dagoen informazioa biltzea eta aztertzea (arintzea eta egokitzea).

    1.2. Elkarrizketak arduradun teknikoei.

    1.3. Barne- eta kanpo-komunikazioko plana diseinatzea.

2. ARINTZE- ETA EGOKITZE-DIAGNOSTIKOA

    2.1. Oiartzun klima-aldaketaren arloan kokatzea.

    2.2. Arintze-diagnostikoa. Oiartzungo Udalak 2016. urtean egin zuen **udal eraikinen eta argiteria publikoaren inbentario energetikoa**. Gaur egun **Our City Our Energy APP** aplikazioa instalatuta du udal eraikinen eta argiteria publikoaren kontsumo eta kostu energetikoak erakusteko. 2021. urtean **udal eraikinen ziurtagiri eta auditoretza energetikoak** egin ziren. Informazio hori kontuan izanik ondorengoak jasoko dira KEPean:

        2.2.1. Udalerriko sektoreetako BEGen energia-balantzea eta inbentarioa.

        2.2.2. Udaleko BEG edo karbono-aztarnen balantze energetikoa eta inbentarioa.

        2.2.3. Udal instalazioen azterketa energetikoa.

            - Eraikinen parkearen, argiteriaren eta udal-flotaren energia-kontabilitatea.

            - Eraginkortasun energetikoaren adierazleak kalkulatzea.

ESKUfbbe9a6f-5f01-48bd-93b5-657e26db5efd

- Energia aurrezteko eta berriztagarriak sortzeko potentzialak identifikatzea.

2.2.4. Energia-balantzearen eta isurien diagnostiko sintetikoa.

2.3. Egokitzapen-diagnostikoa

2.3.1. Joera historikoen eta klima-proiekzioen azterketa.

2.3.2. Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa.

2.3.3. Klima-aldaketa egokitzeko diagnostiko sintetikoa.

3. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

3.1. 2030erako joera-egoera prestatzea eta murriztu beharreko BEG isurketen helburua kalkulatzea.

3.2. Ikuspegia, xedeak eta helburu estrategikoak formulatzea (arintzea eta egokitzea).

3.3. 2030 PLANAren agertokia egitea.

4. EKINTZA-PLANA

4.1. Planaren eskema egitea, jasangarritasunerako ekintza-planen egituraren arabera (estrategia-ildoa, programa, ekintza).

4.2. Ekintzen ezaugarriak zehaztea (eremu komunak + eremu espezifikoak, arintzea eta egokitzea).

4.3. BEG globalen emisioen murrizketa kalkulatzea, sektoreka eta ekintzaka; eta Planaren irismena doitzea.

5. BARNEKO ETA HERRITARREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

5.1. Barne mailako eta herritarren arteko partaidetzarako eta komunikaziorako plan bat diseinatzea.

5.2. Laneko bilerak egitea barneko batzorde teknikoarekin.

5.3. Parte-hartze saioak herritarrekin eta funtsezko eragileekin.

5.4. Komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak

ESKUfbbe9a6f-5f01-48bd-93b5-657e26db5efd

6. PLANAREN JARRAIPEN-EREDUA ETA UDAL-KUDEAKETA ENERGETIKOAREN ANTOLAKETA, PLANA BULTZATZEKO

    6.1. Udalsarea 2030en tokiko jasangarritasun-planen ebaluazio- eta jarraipen-ereduan oinarritutako jarraipen-eredua egituratzea.

7. OIARTZUNGO KLIMAREN ETA ENERGIAREN EKINTZA-PLANAREN AZKEN DOKUMENTUA ETA DIBULGAZIO-DOKUMENTU SINTETIKO BAT IDAZTEA

4. KONTRATUA EGIKARITZEKO INGURUMEN-IRIZPIDEAK

KEParen idazketak lortu nahi duen helburuarekin bat etorriz, hau da, udalerrian isuriak murriztea, enpresa esleipendunak lana egiteko honako ingurumen-irizpideak txertatu beharko ditu:

- Papera aurrezteko irizpideari jarraitu: proiektuan zehar sortutako lan-dokumentu guztiak pdf formatuan entregatuko dira, posta elektronikoz edo, bestela, CD, PENDRIVE edo antzeko dokumento birgrabagarri eta irekietan, ondoren berrerabili ahal izateko.

- Amaierako dokumentuak pdf formatuan eta office formatuan entregatuko dira, posta elektronikoz, edo, bestela, CD, PENDRIVE edo antzeko dokumentu birgrabagarri eta irekietan, ondoren berrerabili ahal izateko.

  Hala ere, eta dokumentuak ofizialak direnez, beharrezkotzat jotzen da bi kopia paperean entregatzea.

- Jarraipen Batzordearen bisitak eta bilerak aldez aurretik programatzea, ahalik eta probetxamendu handiena lortzeko eta beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesteko.

Dokumentuak inprimatzea beharrezkotzat jotzen bada, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Inprimitzea kopurua ahal den neurrian murriztea, eta premietara ahalik eta gehien egokitzea (bilera bateko parte-hartzaile kopurua, etab.), kopia soberakinik egon ez dadin.

- Dokumentuak bi aldeetatik inprimitzea, zuri-beltzean (zuri-beltzean interpretatu ezin den kasuetan bakarrik erabiliko da kolorea), bi orrialdera aurpegiko (betiere ulergarritasuna bermatzen bada), ahalik eta azaleztapen gutxienarekin eta plastikozko estalkirik gabe (birziklatzea errazteko).

- Amaierako dokumentuaren bi kopiek bi aldeetakoak izan behar dute, eta ahalik eta azaleztapen txikiena izango dute.

- Paperak honako baldintza hauek beteko ditu:

ESKUfbbe9a6f-5f01-48bd-93b5-657e26db5efd

- % 100 birziklatua izatea. DIN A4 edo DIN A3 sistemetan inprimatu ezin diren planoetarako bakarrik erabili ahal izango da paper ez-birziklatua, edo merkatuan kalitate birziklatuko paperik ez duten paper-motak eskatzen dituzten beste erabilera batzuetarako. Kasu horietan, paperaren % 30 gutxienez baso-ustiapen jasangarri ziurtatuetatik (FSC, PEFC edo baliokidea) eta/edo zuntz birziklatuetatik datorren egur-zuntza izango da. (TCF).

- Gehienez ere % 80ko zuritasun-maila izatea ISO 11474:2004 arauaren edo baliokidearen arabera.

5. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak giza baliabide kualifikatuak izango ditu proiekturako, bai eta kontratuaren xede diren zerbitzuak ahalik eta ondoen emateko behar diren materialak ere, eta betebehar horrek eragiten dituen kostu guztiak bere gain hartuko ditu, garraio-kostuak barne.

Eskatzen den gutxieneko taldea 3 pertsonek osatuko dute gutxienez, eta honako hau da:

- Lanen zuzendari-koordinatzaile bat; unibertsitateko tituluduna izan beharko da, eta prestakuntza/esperientzia izan beharko du proiektuen zuzendaritzan eta kudeaketan, bereziki energiari eta udal-kudeaketa energetikoari lotuak.
- KEP idazteko eta idazten den bitartean horren berri emateko eta parte hartzeko taldea. Talde hori koordinatzaileaz bestelako bi teknikarik osatuko dute gutxienez. Teknikari horiek ingeniari teknikoak edo goi-mailako ingeniariak izan beharko dute, unibertsitateko tituludunak edo ingurumenean espezializatutako gradudunak.

Era berean, eskatutako hiru profiletako batek esperientzia izan beharko du komunikazioko eta herritarren partaidetzako prozesuetan.

Esku hartzen duten giza baliabideen parte-hartze zehatza eta baliabide materialak zehaztu beharko dira. Pertsonen kasuan, teknikari jakinak atxikiko dira kontratura eta haien dedikazio-mailak adieraziko dira; beraz, lanetan esku hartuko duten pertsonak identifikatu beharko dira. Horretarako, lizitaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioan teknikari horiek zein diren zehaztuko da, eta haien titulazioa egiaztatu.

6. EGIKARITZE-EPEA

Esleipendunak lan guztiak 10 hilabeteko epean aurkeztu beharko ditu, kontratua formalizatzen denetik hasita, entrega partzialen epeak bete beharko dira eta gehienez ere 2023/09/29rako amaitu beharko du lana.

Epe horren barruan, hiru entrega partzialetarako kronograma bat ezarri da:

1. Lehen entrega: 3 hilabeteko epea, kontratuaren hasieratik kontatzen hasita, arintzearen eta egokitzearen diagnostikoa aurkezteko.

ESKUfbbe9a6f-5f01-48bd-93b5-657e26db5efd

2. Bigarren entrega: 3 hilabeteko epea, diagnostikotik kontatzen hasita, 2030 PLANAren agertokia aurkezteko.

3. Hirugarren entrega: 4 hilabeteko epea, aurreko dokumentua bukatzen denetik kontatzen hasita, Oiartzungo Klima eta Energia Planaren azken dokumentua aurkezteko.

7. EGIKARITZEKO BALDINTZAK, HIZKUNTZA OFIZIALEI DAGOKIENEZ

Baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiriko 18.5 klausulan aurreikusitakoak.

8. GENERO-BERDINTASUNEKO IRIZPIDEAK

Bermatuko da genero-berdintasuneko alderdiak sartzen direla agirietan eta burututako jardueretan, hizkuntza- eta irudi-diskriminazioak saihestearren.

Nork Sinatua / Firmado por: ANDER SANTESTEBAN URRATE - 72448913V
2022/07/15 02:00:07

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUfbbe9a6f-5f01-48bd-93b5-657e26db5efd**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***